

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

ESKUALDEKO KULTUR ETA SORMEN INDUSTRIEN LEHIAKORTASUNA AREAGOTZEKO EKIMENAK IDENTIFIKATUKO DITUEN LELOA ETA IRUDIA SORTZEKO LEHIAKETA

OINARRIAK

1. artikulua. Lehiaketaren nondik norakoak.

Urola Kostako Udal Elkarteak eskualdeko kultura eta sormenezko industriak (aurrerantzean KSI) dituen gaitasun, ahultasun eta beharren azterketa egin du "Urola Kosta, eskualde Sortzailea" izeneko egitasmoaren bidez (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoako lehiakortasuna eta lurralde kohesioa sustatzeko programaren laguntzarekin garatutako egitasmoa). Sektoreko enpresa, eragile eta profesionalekin hainbat topaketa egin ondoren, KSien alorra indartu eta sendotzeko honako arlo hauetan lan egin beharra azaleratu da:

- Sektorean sare bat eratzea
- Sektorea profesionalizatzea
- Sektoreari ikusgarritasuna ematea

Azterketa honek agerian utzi digu eskualdean kultur eta sormen industrietan badutela zer esana. Horren harira, Urola Kostako Udal Elkarteak hurrengo urteetan eskualdeko KSien sektorearen ikusgarritasuna handitzen eta sektorea indartzen egingo dituen ekimenetan erabiliko den irudia sortu nahi du.

2. artikulua. Lehiaketaren xedea eta objektua

Lehiaketa honen xedea da eskualdeko kultur eta sormen industrien lehiakortasuna areagotzeko eta sektore hori indartu eta alor ekonomiko modura sustatzeko egingo diren ekimenak identifikatuko dituen leloa eta irudia sortzea.

Baloratuko da, besteak beste, proposatutako diseinuak entitatearekin eta sektorearekin lotura edukitzea, beren eginkizunari dagokionez nahiz Udal Elkartearen osatzen duten bost udalerrien izaerari dagokionez.

3. artikulua. Parte-hartzaileak

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute 18 urte baino gehiago dituzten eta Udal Elkartearen osatzen duten udalerrietan (Aia, Getaria, Orrio, Zarautz eta Zumaian) kultura eta sormen industrien alorrean diharduten pertsona, enpresa eta ekintzaileak.

Ulertuko da Udal Elkartearen osatzen duten udalerrietan dihardutela kultura eta sormen industrien alorrean, pertsonen kasuan Aia, Getaria, Orrio, Zarautz edo eta Zumaian erroldatuta badaude; eta enpresen kasuan, beren jardueraren goitza bost udalherri horietako baten badute.

Ezingo dute parte hartu Urola Kostako Udal Elkarteko langile eta epaimahaiko kideek, ez eta horiekin ahaidetasunezko erlazioak dituzten pertsonak edo epaimahaikideak abstenitzeko kausa izan litekeen beste egoera batzuetan daudenek ere.

4. artikulua. Aurkeztu beharreko edukiak

Lehiaketan parte hartzeko ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar da:

1. A eranskina: parte-hartze fitxa.
2. Errola ziurtagiria edo enpresen kasuan 036 eredia.
3. B eranskina: egitasmoaren nondik norakoaren azalpena.
4. Proposatutako leloa eta irudia euskarri digitalean aurkeztu behar dira (pendrive edota CD batean), oinarri hauen hurrengo atalean zehaztutakoaren arabera. Horrez gain, hala nahi izanez gero, formatu fisikoan ere aurkeztu ahal izango dira.
5. C eranskina: zinpeko aitortpena.

5. artikulua. Lanen ezaugarriak

Aurkeztutako proposamenek ezaugarri hauek beteko dituzte:

- Aurkeztutako proposamenak izango dira ideia propioak, originalak eta argitaratu gabeak.
- Teknika librea izango da, kontuan izanik irudi horrek gerora hainbat euskarri eta materialetan erreproduzitzeko aukera eskaini behar duela.
- Parte-hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.
- Baztertu egingo dira izaera sexista duten edo arraza, erlijio edo bestelako bazterkeria sustatzen duten proposamenak eta iraingarritzat har litezkeenak.
- Leloak gutxienez euskaraz egon beharko du.
- Irudiaren proposamena honela aurkeztu behar da:
 - a) Formatua:
 - Formatu estandarrean: TIFF, JPG edo PDF
 - Editatzeko formatuan: INDESIGN (edo diseinu grafikoan erabiltzen den software arrunten batean)
 - Bereizmena: 300ppp
 - b) Koloreak: Lanak egiteko garaian kontuan izango da lanaren erreproduzioak zailtasunik ez ematea eta lau tinta baino gehiago (kuatrikomia) behar ez izatea.

6. artikulua. Lanak aurkeztea eta izapidetzea

Lanak Urola Kostako Udal Elkartearen Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz) edo, nahi izanez gero, bide telematikoak erabiliz (harrera@urolakosta.eus).

Lanak aurkezteko epea hasiko da lehiaketaren deialdia Udal Elkartearen webgunean (www.urolakosta.eus) argitaratu eta hurrengo egunean eta amaituko da **2017ko urriaren 11n, 14:00etan**.

Proposamenak aurkezteko ondoko dokumentu hauek aurkeztu behar dira, bi gutun-azaletan. Gutun-azalek honako izenburua izango dute: KULTUR ETA SORMEN INDUSTRIEN LEHIAKORTASUNA AREAGOTZEKO EKIMENETARAKO LELOA ETA IRUDIA SORTZEKO LEHIAKETA.

Gutun-azal batean (irekita) aurkeztuko dira ondoko dokumentuak:

- A eranskina
- C Eranskina
- Errolda ziurtagiria

Beste gutun-azal batean (itxita) aurkeztuko dira ondoko dokumentuak:

- B eranskina
- Proposamena (euskarri digitalean eta, hala nahi izanez gero, euskarri fisikoan)

Aurkeztutako proposamenak Epaimahaiko idazkariaren esku geratuko dira eta honek, Epaimahaiaik dagokion erabakia hartu arte proposamen bakoitza norena den jakin ez dezan, anonimotasuna bermatzeko behar diren izapideak egingo ditu. Lehiaketako parte-hartzaileen anonimotasuna gordetzeko eta zaintzeko bi gutun-azalen sistema erabiliko da, era honetara:

- Urola Kostako erregistro orokorrean A eranskinari sarrera emango zaio eta, ondoren, A eranskina, errolda ziurtagiria eta C Eranskina gutun-azalean sartu eta itxi egingo da.
- Partehartzaile baten bi gutun-azalei zenbaki berbera idatziko zaie azalean. Ondoren, partehartzaile horren gutun-azalak Epaimahaiko idazkariak gordeko ditu, Epaimahaia elkartu arte.
- Epaimahaia biltzen denean, idazkariak parte-hartzaileen proposamenak dituzten gutun-azalak jarriko ditu Epaimahaiaaren esku, aurkeztutako proposamenak aztertu eta dagokion erabakia har dezan. Erabakia hartu ondoren irekiko dira parte hartzaileen nortasunaren informazioa duten gutun-azalak.
- Epaimahaiaaren jarduna erraztu eta antolatzeko beharrezkoa bada, Epaimahaiko idazkariak erabaki ahal izango du parte-hartzaileen proposamenak dituzten gutun-azalak ireki eta proposamenak deskargatzea eta antolatzea.
- Idazkariaren esku egongo da soilik aurkeztutako proposamenen eta lehiakideen nortasuna jakitea ahalbidetzen duen informazioa eta, beraz, idazkariak ez du aurkeztutako proposamenen gaineko baloraziorik egingo eta ez du Epaimahaian bozkatzeko eskubiderik izango. Idazkariaren eginkizuna izango da lehiaketa bideratzea eta Epaimahaiaaren jarduna bideratzea, oinarriotan ezarritakoa betez.
- Gorago adierazi dugunez, lehiakidearen nortasun datuak isilpean gordeko dira, Epaimahaiaik dagokion erabakia hartu arte. Horrenbestez, aurkeztutako proposamenean parte-hartzailearen nortasuna ondorioztatzea ahalbidetzen duen elementuren bat agertzen bada, proposamen hori baztertu egingo da. Egilearen ardura da proposamenean aurkeztu dituen euskarri eta dokumentuek proposatutako lelo eta irudia baloratzeko informazioa bakarrik edukitzea eta ez, inola ere, bere nortasunari buruzko informaziorik.

7. artikulua. Saria eta sari-banaketa ekitaldia

Irabazten duen proposamenari 1.200,00 euroko saria emango zaio.

Epaimahaiaren erabakia ezagutzera emango da ekitaldi publiko batean. Ekitaldi hori noiz eta non egingo den aurrerago jakinaraziko zaie partehartzaileei. Irabazleari sariaren ordainketa ekitaldi horren ondoren egingo zaio. Irabazleari, atxikipenaren subjektu baldin bada, dagokion PFEZ atxikiko zaio.

Urola Kostako Udal Elkarteak argitara eman edo ikusgai jarri ahal izango ditu lehiaketara aurkeztutako lanak, jatorria eta egilea aipatuz, salbu eta irabazle suertatu ez diren lanen kasuan, egileek adierazi badute anonimo geratu nahi dutela. Kasu horretan, A eranskinean izen-ordea adierazi beharko da.

8. artikulua. Lanaren jabetza

Lehiakidea izango da lehiaketaren helburuak betetzeko erabilitako material, prozedura eta ekipoen jabetza intelektual, industrial eta komertzialaren inguruko edozein erreklamazioaren erantzule, eta dagozkion kalte ordainak emango dizkio administrazioari, edozein erreklamazioren ondorioz hari sor liezazkiokeen kalte eta galerengatik.

Hautatutako diseinuaren egileak Urola Kostako Udal Elkarteari lagako dizkio ustiapen eskubideak, eskusiban eta denbora mugarik gabe, horien artean direla, adibide gisa eta hauetan agortu gabe, eraldatzeko, inprimatzeko, argitara emateko, eta hedapen eta zabalkundea egiteko eskubideak, edozein prozedura edo bidetik, edonolako euskarritan eta nahi adina alditan.

Aurreko paragrafoan jasotakoari jarraituz, proposamen irabazlearen egileak egokia den agiria sinatu beharko du, Udal Elkarteak horrela eskatzen dion unean, jabetza eskubideak laga direla publikoki jasota gera dadin.

Egokitzat jotzen badu, Urola Kostako Udal Elkarteak lan saritua eta haren gainean dituen eskubideak erregistro ofizialetan inskribatuko ditu, hala nola Espainiako Patente eta Marken Bulegoko Erregistroan edo Jabetza Intelektualaren Erregistroan.

Lan irabazlearen egileak ezingo du erabili, ez osorik ez zatika, hautatutako diseinua, edota honen osagai edo zatiak, aurrerantzean egindako lan edo proiektuetan.

Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzan geratuko da lehiaketan onartutako dokumentazio guztia. Saritu gabeko lehiakideek hilabeteko epean jaso ahal izango dituzte beren lanak, Epaimahaiaren epaia jakitera ematen denetik hasita. Epe hori igarotakoan, Udal Elkarteak deuseztatu egingo ditu.

9. artikulua. Datuen tratamendua

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, arautzen duena betetzeko, Urola Kostako Udal Elkarteak deialdi honen bidez eskuratzen dituen datu pertsonalak txertatuko ditu “Prestakuntza eta enplegu programak” eta “eskualdeko enpresak” izeneko fitxategietan. Fitxategi horiek arautzen ditu Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen 2010eko otsailaren 4ko akordioak (Urola Kostako Udal Elkartearen datu pertsonalen fitxategiak arautzeko akordioak).

Horrez gain, pertsona interesdunek datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, honako helbidera idatzia bidalita: Urola Kostako Udal Elkarte, Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz.

10. artikulua. Epaimahaia eta erabakia

Oinarri hauetan aurreikusitako saria lehiaketa bidez emango da.

Epaimahai bat eratuko da lehiaketara aurkeztutako proposamenak aztertu, baloratu eta sariduna hautatzeko. Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua:
Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio arduraduna
- Idazkaria:
Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enplegua Saileko arduraduna
- Epaimahaikideak:
Udal Elkarteko Enpresentzat Zerbitzuak saileko teknikaria
Udal Elkarteko prospekzioa teknikaria.
Urola Kostako osatzen duten udaletako 2 kultur teknikari.
Kultur eta Sormen Industrietako aditu bat.

Epaimahaiari dagokio, oinarriotan zehaztutakoaren argitara, aurkeztutako proposamenak baloratzea, sariduna erabakitzea, oinarri hauek interpretatzea eta lehiaketa egoki burutzeko behera diren erabakiak hartu eta eginbideak bideratzea.

Idazkariaren egitekoa izango da proposamenak gordetzea eta zaintzea, egileen nortasuna isilpean edukitzea (harik eta Epaimahaiak erabakia hartu arte) eta Epaimahaiaren bilkuren aktak egitea, proposamenen gainean egindako hausnarketa eta balorazioak jasoz.

Epaimahaiaren erabakia aterako da proposamenek eskuratzen dituzten puntuen arabera eta, beraz, saridun izango da puntu gehien eskuratzen duena. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitatezko botoa baliatu ahal izango du. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiak erabaki dezake lehiaketa hutsik uztea, baldin eta aurkeztutako proposamenek ez badute gutxienerako kalitaterik. Proposamen batek gutxienerako kalitaterik ez duela iritziko zaio 55 puntuko langa gainditzen ez badu.

Proposamenak baloratzeko, Epaimahaiak honako irizpide hauek izango ditu kontuan:

1. Leloaren eta diseinuaren originaltasuna eta sormena (20 puntu).
2. Proposamenaren justifikazioa (25 puntu).
3. Proposamenaren erabilpenen adibideak (10).
4. Proposamena aurkeztu duen taldearen osaketa (10).
5. Erraz identifikatzeko eta irakurtzeko modukoa izatea (20 puntu).

11. artikulua. Oharrak

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta Epaimahaiaren erabakia oso-oso-oso eta baldintzarik gabe onartzea.

Baztertu egingo dira ondoko kasu hauetakoren batean dauden proposamenak:

- Epez kanpo entregatua izatea.
- Oinarri hauetan jasotako baldintzaren bat ez betetzea.
- Funtsezko kontraesanak, zehaztasunik eza edo alderdi ulertezinak agertzea.
- Genero, arraza edo erlijio gaitan iraingarria izatea.
- Indarrean dagoen legedia urratzea.
- Epaimahaiaren erabakian eragiten saiatzea, edozein bide baliatuz.

Lehiaketan parte hartze hutsagatik, irabazle gertatzen denak konpromisoa hartzen du jasotako sari ekonomikoa ondoko kasu hauetan Urola Kostako Udal Elkarteari itzultzeko:

- Urola Kostako Udal Elkarteak irabazleak aurkeztutako logotipoa edo irudia erabiltzerik ez izatea, organo eskudunak plagio deklaratzearen ondorioz.
- Beste edozein arrazoitan oinarritutako edozein ebazpen judizial edo administratiboengatik.

Kasu horietan, Urola Kostako Udal Elkarteak dagokion espedientea izapidetuko du, interesatuari audientzia emanda. Baldin eta irabazleak dirutan jasotako saria itzuli beharra deklaritzen bada, hilabeteko epea emango zaio itzulketa egiteko. Epe horretan bere borondatez itzultzen ez badu, premiamenduzko prozedurari ekingo zaio.

Urola Kostako Udal Elkartea
2017-09-15